

DANI BLANCO



Angel Erro

◆ IDAZLEA

Apunteak

GERRATIK, batzuetan ezagutzen ez ditugun edo ahaztu zaizkigun lurraldeetako gerretatik, ihesean datozen errefuxiatu eta bizimodua hola edo hala aurrera atera nahian gurera nahi duten etorkinen arazoa biziberritu da azkenaldian. Uda honetan bereziki. Jende askoren kontzientzia astindu du. Aztertu horri buruzko liburu bat ateratzeko egokiera. Baztertu, oraingo, ukitu feministadun gazte euskaldun baten prekarietateari buruzko egitasmoa.

ISTORIA: 2015eko abuztuaren 29an Livornoko taberna batean (Piccola Veneziaren parean) kafea hartu bitartean, *La Repubblica* egunkarian irakurritako *La bimba contesa, nata su un gommone* artikuluan jasotakoa.

Lampedusatik hurbil kostako guardiek erreskatatu duten txalupa batean, Libiatik etorritako 103 lagun artean, emakume hil bat dago. Gazte-gaztea. Nigeriarra. Libiako "eremu" batean, Italiara noiz zeharkatu ahalko zain, seguruena egoera higieniko eta mediko eskasean erditu zen Gift (Oparia) deitu duten neskatza batez. Eta harekin ontziratu da aukera izan duenean, baina batek daki nolako erditzearen ondorioengatik hil da ama bidaiaren erdian. Txalupako emakumeek zainduta aurkitu dute gorpua.

Umea lehenik erreskatatu dute. Guardiek Lampedusako ospitale batera eramanez, azter dezaten. Umea onik dago. Amaren gorpua erreklamatu duen emakumeak, haren ahizpak, txalupa berean zegoenak, Gifti laguntzen dio ospitalean.

Kontua nahasi da gizonezko bi gazte nigeriarrek poliziara jo dutenean bakoitzak umea berea dela esanez. Ustezko izebak ez bata ez bestea, benazko aita Nigerian gelditu dela adierazi du. Agrigento-ko komisariako krimenen ardurapean utzi dute kasua. Horraino notizia.

ELEBERRI PLANA: Bi polizia-gizonari ematen diete umea noren senidea den ikertzeko ardura. Ez dago proba genetikorako aukerarik (asmatu aitzakia bat: aurrekontua, burokrazia, sistemari berdin diote baztertuen filiazio kontuek). Bi aita posibleen artean hasten dute ikerketa. Nondik etorri diren, non ibili diren, Giften ama nola ezagutu duten... Ez dute ezer garbi ateratzen umearen izebarekin gurutzatutako datuen argitara.

Polizietako batek Salamone izan lezake abizena. Siziliakoa. Salamone abizena Italiako hegoaldekoa omen da. Bi aiten artean aukeratu behar diren oihartzun biblikoari keinu egiteko. Izan ere, unerenean batean holako estualdi batean jarri beharko litzuzke, egiatzko aitak are alaba bestearekin gelditu nahiago izateraino. Gift Nigeriara bueltan bidaltzearekin mehatxatu? Horrela ere ez du lortzen gezurrezkoari mozorroa kentzea. Mundu guztiak ezagutzen du Bibliako trikimailua. Biek nahiago izan dute besteak Gift izatea, umea etorkizunik gabeko lurraldera itzultzea baino (sic). Halere, Salamone inspektoreak, senez, badaki haietako bat—desaxolena dirudiena— dela aita, frogatu ezin badu ere.

Nagusiek erabaki bat hartzeko presatzen diote. Ez du erantzunik. Prozedura burokratikoari jarraiki, izebari ematen zaio umea. (Aldaketa?: umearen izeba beharrean, amaren izeba bihurtuko nuke).

Denbora pasa da. Berrelkartze familiarra eskatu du Nigeriatik izebak aitatzat jotako gizonak eta Italian batu dira. Salamonek leitu du txostenen eta ahaztu da kontuaz. Behin ikusten ditu. Giften aita gizon zahar bat da, izebari gerritik eusten diona. Argi daku-sa emakume horrek Gift erabili duela bere senarra Europara ekartzeko. Akaso, lanetik eta legetik kanpo, aitaren bila hasten da. 400 orrialde. Umeari izena aldatu: Opari deitza agerikoegia da eleberriri baterako. ■



Antton Olariaga